



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

140. zenbakia

2023ko martxoak 10 - 23

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Euskal soziolinguistika Jardunaldia atzeratu egin da. Data berria: apirilak 25

Gaur Hendaian egitekoa zen Euskal Soziolinguistika Jardunaldia atzeratu egin da. Ipar Euskal Herrian Frantziako gobernuaren erretreten erreformaren aurka deitutako greba orokorrak ekarri du erabakia. Edonola ere, data berri bat iragartzeko moduan gaude: Apirilaren 25ean egingo da Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Lehen bezala, goizeko 9:15etatik 17:00ra Hendaiaiko Gaztelu Aretoan.

Hezkuntza soziolinguistikorako materialen bilduma sarean erabilgarri dago

Soziolinguistika Klusterrak, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak eta Ikastolen Elkarteak landu dute bildumaren online datu-basea, Izaro Arruti eta Sandra Prietok egindako lana oinarri hartuta.

"Euskararen erabilera zertan den" aurkeztu da Konfekoop Irakaskuntza Kongresuan

Irakaskuntza kooperatibak 2030.urtean izenburua eman diote Konfekoop irakaskuntzak antolatuta, Bilboko Euskalduna Jauregian martxoaren 21 eta 22an egindako Irakaskuntza Kooperatiben 5. kongresuari.

Ikerketak

EAEko 16 urtetik gorako gazteen 74,5 euskalduna da, duela 30 urte baino 49,5 puntu gehiago

[EUSKO JAURLARITZA] Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak EAEko VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak aurkeztu ditu. Donostian, Tabakaleran, egin den prentsaurrekoan Kultura eta Hizkuntza Politika sailburu Bingen Zupiriak eta Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaranek parte hartu dute.

Euskarabideak Nafarroari dagozkion azken Inkesta Soziolinguistikoko datuak aurkeztu ditu

[NAVARRA.ES] "Euskara Nafarroako datu demolinguistikoetan. Iturriak, bilakaera eta egungo egoera" jardunaldian eman ditu ezagutzera. Iruñeko Kondestablearen Jauregian antolatutako jardunaldian, Euskarabideak datu demolinguistikoaren garrantziaren gaineko gogoeta proposatu eta Nafarroako azken datuak, 2021ean egindako VII. Inkesta Soziolinguistikoko jasoak, aurkeztu ditu.

Actituds i usos lingüístics dels joves de les Illes Balears

[GOIB] Es fa públic l'informe «Actituds i usos lingüístics dels joves de les Illes Balears», duit a terme pel Grup de Recerca Sociolingüística de les Illes Balears (GRESIB) per encàrrec de la Direcció General de Política Lingüística.

Marjorie Boulton Fellowships

[ESPERANTIC.ORG] The Esperantic Studies foundation (ESF) announces its 2023 competition for research fellowships in all fields of the humanities and social sciences, particularly as they relate to interlinguistics, linguistic justice, intercultural communication, Esperanto, and related phenomena.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Euskararen biziberritzearen erronkak eta praktikak hizpide izan ziren Euskararen Transmisioa eta Sozializazioa Mintegian

[ETAKITTO.EUS] Martxoaren 15ean izan zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen Euskararen Transmisioa eta Sozializazioa Mintegia. Aurtengoa hamairugarren edizioa izan da eta Armeria Eskolan egin da bigarrenez, hori bai, oraingoan maskarillarik gabe.

IV Seminario internacional de Sociolingüística. Las ideologías lingüísticas

[UNIVERSITAT D'ALACANT] 2023ko maiatzaren 9an, "IV Seminario internacional de Sociolingüística. Las ideologías lingüísticas" antolatuko da.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Euskara modernoaren hiztegirik zehatzena landu du UPV/EHUko Euskara Institutuak

[EHU] 'Egungo Euskararen Hiztegia' (EEH) proiektu erraldoia amaitu berri du UPV/EHUko Euskara Institutuak. Lana 2008. urtean abiatu zen, eta 15 urte behar izan dira bukatzeko.

A materialist take on minoritization, emancipation, and language revitalization: Occitan sociolinguistics since the 1970s

[WILEY ONLINE LIBRARY] This paper introduces and discusses Occitan sociolinguistics as it evolved from the 1970s onward as a theory of language contact as conflict. It was developed in conjunction with its Catalan counterpart and as a reaction to Joshua Fishman's allocational model of diglossia, and came as a response to conditions of swift social and linguistic change in Southern France after the Second World War.

Coping with a language loss: A case of linguistic and cultural re-encoding of memories in language attriters

[SAGE JOURNALS] This study investigates the effects of language loss on bilingual autobiographical memory. More specifically, the study focuses on whether severe language loss would lead to any linguistic changes and/or interfere with how memories are recalled and shared.

Language Attitudes as Insights into Indigenous Language Shift and Maintenance

[TAYLOR & FRANCIS] This study explores language shift and maintenance of Indigenous languages in bilingual contact situations. It specifically examines how factors such as language attitudes favour and deter the use, maintenance and transmission of Nahuatl.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

"Hiztunek ez diote bizkar ematen euskarari"

[ARGIA] Errealitatea eraldatzeko, gauzak ahalik eta zehatzen ezagutu behar direla sinetsita dago Iñaki Iurrebaso Biteri (Legazpi, 1967). Soziologia ikasketaz, ofizio horretan aritu izan da beti, hasi Donostiako Udalean, Aztikerren ondoren, eta bere kabuz gero.

Murgiltze ereduaren indarguneak, eleaniztasuneko irakaskuntzan

[NAIZ] Euskara eleaniztasunean irakasten duten bi eskolaren indarguneak identifikatu ditu Beñat Garaio soziolinguistak bere tesian.

EHUko masterretarako izen-emate epea zabalik: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra

[EHU] EHUko masterretarako izenemate epea zabalik dago, martxoak 31 arte. Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterraren helburu nagusia ikertzaileak trebatzea da, hainbat ikuspegitik gai izan daitezen euskal hizkuntzaren edo literaturaren gai zehatz bati buruz.

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

